



## Zelaia sagardotegiak irabazi du XVII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak

📅 Ira 21, 2018 🌐 Lehiaketak, Sagardotegiak 💬 0 comments



Parte hartu duten sagardotegi guztiek, lehenengo aldiz, bertako sagarrarekin egin dute sagardoa

Zelaia sagardotegiak irabazi du XVII. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak, eta, lehenengo sariaren irabazleak jaso ohi dituen hiru mila euro, garaikurra eta txapela ez ezik, opari berri bat ere etxeratu du: irabazlearen egiaztagiri zigilu bat, saria jaso ondorengo kanpainan erabiltzea izango duena. Bigarren eta hirugarren postuak Zapiain eta Gaztañaga sagardotegiek lortu dituzte.

Hala ere, zigilua ez da Gipuzkoako Foru Aldundia Sarien edizio honetako berrikuntza bakarra; lehenengoz, parte hartzaileek (guztira 24 upeltegi) bertako sagarrarekin bakarrik egindako sagardoak aurkeztu dituzte. Halaber, sari banaketaren ekitaldia eta amaierako dastaketa ere desberdinak izan dira lekuari eta formatuari dagokionez. Aurten, amaierako dastaketa ez da jendaurrean egin, Gastronomika elkartearen, aurreko edizioetan egin izan den moduan; aldiz, Frasieroko Nekazaritza eta Ingurumen Laborategiko instalazioetan egin da, dastaketaren baldintzak hobetearren.

Hiru irabazleen izenak Aldundiko Jargi aretoan jakinarazi dira, Markel Olano diputatu nagusiak zuzendutako sari banaketako ekitaldian. Olanok azpimarratu nahi izan du sagardoa garrantzi handiko azpisektorea dela Gipuzkoan, ekoizpenaren ikuspuntutik

zein ikuspuntu ekonomiko eta kulturaletik. «Gure lehen sektoreko sinbolo solidoenetako bat zarete, eta guretzat sagardoaren sektorea zein garrantzitsua den adierazten dute Foru Aldundiak ematen dituen diru laguntzek eta Ekonomia Sustapeneko eta Landa Inguruneko Departamentuarekin batera lantzen dugun lan ildoak; hasi sagar eta sagardo ekoizleek egindako hitzarmenetatik eta sagarrondo sail berriak landatzeko diru laguntzetatik, eta Frasieroko gure laborategiko analisi eta dastaketa zerbitzuetaraino», azpimarratu du Olanok.

Txapelketan parte hartu duten 24 sagardotegiek, haiek beraiek egindako sagardo naturalak aurkeztu dituzte, botilatuta, aurrez Euskal Sagardoa Jatorri Deituraren Kontseilu Erregulatzaileak baloratu dituztenak. Aurkeztutako sagardo guztiak 2017ko uztakoak dira, eta etiketatuta eta zenbakituta daude.

### 2017ko sagardoaren ezaugarriak

2017ko kanpainan, Gipuzkoako sagardotegietan, 11,61 miloi litro ekoitzi dira, horien % 85, bertako sagarra erabiliz, eta, % 15, kanpokoak. Ekoizpen horri dagokion 4 miloi litro sagardok (Gipuzkoako 41 upeltegik ekoitziak) Euskal Sagardoa Jatorri Deitura lortu du.

2017ko sagar uzta historikoa izan zen, bildutako sagar kopurua ikaragarri handia izan zelako eta etekin handiko sagarra izan zelako. Sagor horiekin egindako sagardoa usaintzean, nabarmenak dira fruitu aroma eta lurrin freskoak. Sagardo arina, argia eta fina da. Oro har, denboraldi honetan, sagardo orekatua izan dugu, gorputz gutxixeagokoa eta alkohol graduazio txikiagokoa.

Aurtengo 2018. urterako, sagar uzta nabarmen baxuagoa aurreikusten da, gutxi gorabehera 2017. urtekoa baino % 40 baxuagoa.

Fuente: Gipuzkoako Foru Aldundia

## Bilatzailea

<input type="text"/>	Bilatu
----------------------	--------

## Kategoriak

Agenda

Argitalpenak

Azokak

Berriak

Ekitaldiak

Erakusketak



Esperientziak

Formazioa

Gastronomia

Historia

Kultura

Lehiaketak

Museoak

Sagardoa

Sagardotegiak

Sagarra

Sagastia

Turismoa

## Artxiboak

Hautatu hilabetea

## ZATOZ ETA GOZATU

**SAGARDOAREN  
LURRALDEA**

el territorio de la vida

Kale Nagusia, 48

20115

Astigarraga

Gipuzkoa

## LAGUNTZA BEHAR DUZU?

📞 943 550 575

JARRAI IEZAGUZU...



### ESPERIENTZIAK

Zure plana erreserbatu

Neurrira egindako esperientziak

Hautatutako ibilbideak

### SAGARDOTEGIAK

Sagardotegia erreserbatu

Sagardotegia aukeratu

Garraioa sagardotegietara

### SAGARDOETXEA

Sagardoetxea – museoa

Erakusketa eta bisita guneak

Bisita motak

Privacidad - Condiciones

Beste proposamenak hemendik gertu

Sagardotegiaz gozatzeko gomendioak

Nola iritsi eta sarbideak

Nola mugitu

Tarifak eta ordutegiak

Non lo egin

Bisita erreserbatu

Gidak eta informazio praktikoa

Bisita birtuala

Dokumentazio Zentroa

[SAGARDO FORUM](#)

[AGENDA](#)

[BLOGA](#)

[HEDAPENA](#)

[Informazio orokorra](#)

[Boletina](#)

[Argazkiak](#)

[Buletinera harpidetza](#)

[Hitzaldiak](#)

[Sare sozialak](#)



**EUSKADI**  
BASQUE COUNTRY



© 2019 Sagardun Partzuergo publiko-pribatua

LEGEZKO INFORMAZIOA

[NOR GARA](#)

[PROIEKTUAK](#)

[AKORDIOAK](#)

[KONTRATATZAILEAREN PROFILA](#)

